

rekalde



[ILDO ESTRATEGIKOAK - REKALDE]

SARRERA

MISIOA

JARDUERA EREMUA

IKUSPEGIA

BALIOAK :

: HEZKUNTZAREKIKO KONPROMISOA

: NAZIOARTEARI BEGIRA

: GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA

: KOMUNITATE ARTISTIKOAREKIKO KONPROMISOA

: KOMUNIKAZIORAKO KONPROMISOA

: ZABALKUNDERAKO KONPROMISOA

: KUDEAKETA KONPROMISOA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

SARRERA

Rekalde Aretoa Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren menpe dagoen sozietate publiko bat da; 1991ean sortu zen eta bere helburua da publikoak Arte Garaikidearen adierazpen ezberdinak ezagutzea, horiek eskura izatea eta horretan trebatzea.

Egungo gizartean planteatzen diren erronka eta beharrian berriek erantzun aktibo bat behar dute, eskakizun berrietara egokitzen dena. Publikoa eta egoera ekonomikoa ere etengabe aldatzen dira eta horrek erakundearen arreta berezia eskatzen du, bere xede eta helburu estrategikoak eguneratzeko.

Rekalde Aretoak Arte Garaikidearen gune zabal eta ezberdina izan nahi du, bisitarientzako kultur aisialdirako alternatiba bat eta artista eta kultur eragileentzako elkargune bat. Berezko dinamika bat sortu nahi du, gaur egun dauden beste zentro eta guneekiko ezberdina, erakusketa-proposamenak eta horiek aurkezteko modu pedagogikoak etengabe berritzearen alde eginez eta artisten, obren eta publikoaren artean elkarrizketa sustatuz.

Agiri honen helburua da Rekalde Aretoan egiten diren jardueren hobekuntzan eta eraginkortasunean eragitea. Bere etorkizuneko garapenerako ildo estrategiko batzuk proposatzen ditu eta epe berri honetan Rekalderen ardatza izango den filosofia deskribatzen du.

Erakundeak etorkizunari aurre egiteko misioa, orientazioa eta modua diseinatzea da gakoa, baita helburuak planteatzea, neurriak hartzea eta dauden baliabideak optimizatzea ere.

Zerbitzu publiko batek (eta Rekalde Aretoa halakoa da) herritarrekin duen konpromisoak etengabeko kalitatea eskatzen du eta gure gaurko asmoa da Aretoa garatzeko ildo estrategikoak ezagutzera ematea, euskal gizartearen aurrean gure erkidegoko kultura eta artea garatzearen alde konpromiso publiko bat hartzeko.

MISIOA

Rekalderen Misioa bere jarduera guztien oinarrian dagoen filosofia da.

Misioa xede zehatz bat lortzeko egin beharreko zereginen adierazpen bat da.

Labur bilduta, honako hau da Rekalde Aretoaren Misioa:

“Arte Garaikidea eta bere adierazpenak ikusle askoren eta ezberdinen aurrean erakustea eta proiektatzea, islatzen dituen baloreak ezagutzera ematen eta horiekin gozaten laguntzeko”.

“Rekalde Aretoa elkartzeko, hezteko eta zabalkunderako gune bat izatea”.

Rekalde Aretoak Arte Garaikidearen gune zabal bat izan nahi du, bisitarientzako kultur aisialdirako alternatiba bat eta artista eta kultur eragileentzako elkargune bat.

Rekalde Aretoaren funtsa da:

- **Berezko nortasuna, dinamikoa eta desberdintzailea** duen gunea izatea, *kalitate egiaztatu, garaikide eta berritzailean* oinarrituta beti. Rekalde Aretoak gizartean eta komunitate artistikoan txertatu nahi du, gune berri eta bakan bat eskainita.
- Rekalde Arte Garaikidea **erakusteko gune** bat da, batez ere; artista ospetsuen eta berrien (Gipuzkoan Arte-leku eta Bizkaian Bilbao Arte edo GetxoArte bezalako erakusketa-eremuetan parte hartzen dutenak) arteko **erreferentzia-leku** bat da.

Nola garatu Misioa:

- Rekalde **orotariko eredu** gisa definitzen da; *zeharkakotasuna* sustatzen du Arte Plastiko eta Ikus-arteen, Arkitekturaren eta Diseinuaren eremu ezberdinen artean.
- Bere egikeran, Rekaldek **kanpoko ikuspegi** batetik garatu nahi du bere Misioa, eta horretarako gure sortzaileen nazioarte mailako proiektzioa sustatu nahi du eta Aretoan egiten diren jarduera guztien *zabalkundeaz* eta *difusioaz* arduratzen da.

Zertarako garatu Misioa:

- Gizartea Arte Garaikidearen balioetan **“hezteko”**, ezagutza ahalbideduta eta hausnarketa eta eztabaida kritikoa sustatuta, artearen eta pertsonen arteko distantziak laburtzeko asmoz.

Rekalde Aretoaren zeregin nagusia da Arte Garaikidean *hezteko* eta gure gizarteari arte *hori ezagutzera emateko tresna* izatea.

Rekalde Aretoaren Misioaren xedeak *bisitaria* du helburu eta Arte Garaikidearen aberastasuna eta konplexutasuna helarazi nahi dizkio publikoari. Programatutako jarduera guztiak publikoaren gogobetetasuna lortzera bideratuta daude.

Jarduera hauen orientazio didaktikoaren onuradun izango dira, urtero, eskola-umeak, irakasleak, kultur eragileak, profesionalak eta herritarrak, oro har, beti ere gizarte zibilak Rekalde Aretoaren funtzionamenduan parte-hartzea izatea sustatuta.

Programazio artistikoak mezu pedagogikoak nabarmenduko ditu eta kudeaketa guztia bisitariaren gogobetetasuna lortzera eta bere ezagutzak asetzeko beharrianak betetzera bideratuko da.

JARDUERA EREMUA

1. Bertatik nazioarte mailara:

Hurbilenetik jardun eta urrunerantz proiektatu, *bertakotik globalera*. Euskal inguru sortzaile hurbilenari arreta berezia eskainita, baina *kanpoan* ematen diren gertaerak alde batera utzi gabe. Jarduera eremu horien arteko *harremana eta elkarrizketa* sustatu.

2. Agertzen ari denetik sendotuta dagoenera:

Prozesu berritzaileak dituzten artisten *sorrera* eta agertzen ari diren proiektuen –egituratzea eta erakundeen laguntza behar dutenen- *eklosioa* kontuan hartu, karrera hasiberria duten artista gazteentzako plataforma izanez.

Ospe onartua duten artista interesgarrien sormen-ibilbideen *jarraipena eta berrikusketa* egin.

IKUSPEGIA

Rekalde Aretoak honako hau lortu nahi du:

- erakunde berezitu gisa ezaguna eta onartua izatea.
- toki mailan, nazio eta nazioarte mailan erreferente izango den eredu berritzailea izatea.
- Arte Plastiko eta Ikus-arten, Arkitekturaren eta Diseinuaren zeharkako integrazioan aitzindari izatea.
- Arte Garaikideari hertsiki lotutako esperientziak erakarri, bildu eta ekoiztea.
- programazio didaktiko bat sustatzea, ahalik eta ikusle kopururik handienarentzat, eta, horrekin, funtzio hezitzaileak eta ezagutza sustatuko dituen eredu dinamiko bat bultzatzea.
- erakundea garatzeko erritmo orekatuak sortzea.
- komunikabideetan ikusgarritasun iraunkorra mantentzea.
- elkarrizketarako bideak ezartzea gizartearekin eta komunitate artistikoarekin.
- itunak lortzea beste zentro batzuekin eta unibertsitateekin.
- Bilboko, Bizkaiko eta Euskadiko kultur arloko turismo-zirkuituan txertatzea.
- baliabideen aprobetxamendua bilatzea eta baliabide horiek optimizatzea.
- unean uneko programetarako edo programa iraunkorretarako babesleak bilatzea.
- kudeaketa eredu eraginkorra eta kalitatezkoa sortzea.
- testuingurutik sortutako sinergiak eta baliabideak aprobetxatzea.

BALIOAK

Balioak jokoeraren adierazleak dira, Rekaldek bere Misioa gauzatzeko duen filosofia eta izpiritua definitzen duten printzipioak dira; bere jardueren ardatza izan behar diren funtseko konstante iraunkorrak dira.

HEZKUNTZAREKIKO KONPROMISOA

Rekalderentzat lehentasuna duen konpromisoetako bat ikusleak **hezteko funtzioa** da, ikusle horiek Arte Garaikidera hurbiltzea ahalbidetzeko eta hartzaileen ezagutza-bideak aberasteko.

Rekalderen hezkuntza-bokazioak Arte Garaikide ulertzea ahalbidetzen duten eta publikoari esperientzia didaktiko, aktibo eta positibo bat, baita hausnarketarako eta prestakuntzarako esperientzia bat ere, eskaintzen dieten **hezkuntza programak** egitea proposatzen du.

Badaude egoeraren araberako faktore batzuk helburu hau jomuga bereziki zorrotza izatea eragiten dutenak, horren garapenak publikoaren beharrianak bere aldaera guztietan jasotzen baititu (eskola-umeak, ikasleak, helduak, taldeak, norbanakoak, adituak eta ikertzaileak, nazio mailako eta nazioarteko turistak).

NAZIOARTEARI BEGIRA

Rekalde Aretoko jardueren eta euskal sortzaileek egindako lanaren **kanpoko proiektzioa** oso konpromiso garrantzitsua eta etengabe eskatutako beharrian bat da, Rekalde Aretorekin laguntza eta babesia izan duena beti.

Unean uneko itunak eta itun egonkorak eratu nahi dira Arte Garaikideaz arduratzen diren nazio mailako eta nazioarteko erakunde eta zentroekin, proiektuak trukatzeko programak egiteko.

Rekaldek euskal sortzaileen arte-adierazpenak nazio mailan eta nazioartera proiektatzeko eta zabaltzeko eta alderantzizko prozesua egiteko tresna izan nahi du.

GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA

Publikoa ere Rekalde Aretoaren etorkizunaren adierazle ona da; publikoaren aniztasuna kontuan hartuta, ahalik eta publiko zabalenera iritsi nahi da, ikusleekin bitartekaritza eta elkarrizketa estrategiak erabilia.

Gakoa Rekalderen lana galderak egiteko, erantzunak lortzeko eta parte-hartzaileak eta kritikoak izan daitezken hausnarketak sustatzeko aukera ematera bideratzea da.

Rekalde ekimen pribatutik (norbanakoarena edo taldekoa), kanpo eragileengandik sortutako jarduerak egiteko *gune publiko* bat da. Rekalde jarduera horien hartzailea izango da eta horiek lagunduko ditu, espazioa utziz, eta, horrela, Rekalde hiriko kultur ardatzetako bat izango da.

KOMUNITATE ARTISTIKOAREKIKO KONPROMISOA

Rekalde Aretoa erreferentzia gune bat da euskal komunitate artistikoarentzat eta bere programazioak horren aberastasuna eta pluraltasuna jaso behar ditu beti.

Horren proposamenak erakutsi, sustatu eta ezagutzera emateak proiektuak eta artistak trukatzeko eta beste zentro batzuekin itunak eta lankidetzak hitzarmenak egitea ere jasotzen du.

KOMUNIKAZIORAKO KONPROMISOA

Komunikabideek funtsezko papera betetzen dute Rekalde eta bere jarduera ezagutzera emateko, proiektatzeko eta ikusgarri egiteko.

Komunikazio arina ezartzea lehentasun operatibo eta funtzional bat da.

Oso garrantzitsua da informazioa trukatzeko eta informazioa euskarri egokietan izatea, komunikabideen egungo eskakizunen arabera.

Komunikabideek Rekalderen edukiak publiko hartzaileari helaraztea ahalbidetzen dute.

ZABALKUNDERAKO KONPROMISOA

Rekaldek edukien interpretazioa eta zabalkundea ahalbidetzen dituzten materialak egingo ditu.

- - Hezkuntza-materialak: gidak, audiogidak, liburuxkak, programak, testuak, horma-irudiak eta ikus-entzunezkoak, azalpenak emateko.
- Seinaleztapen materialak: kanpoko eta barruko seinaleak, behar bezala ikusteko.
- Argitalpen materialak: katalogoak eta argitalpenak.
- Hausnarketarako materialak (hitzaldiak, ikastaroak, mahai-inguruak eta topaketak, elkarrizketak arte-eragileekin).
- Material osagarriak: ziklo bereziak, kontzertuak, artisten emanaldiak eta aurkezpenak, liburuak, musika, zinea, poesia, etab.

KUDEAKETA KONPROMISOA

Rekalde Aretoaren funtzionamendua eta jardueraren kudeaketa ezartzeko asmoen adierazpen bat sortu behar da.


Baliabide publikoen kudeaketan kalitatearekin konprometitutako eredu bat ezarri, funtzionamendu zuzena eta bere jardueren garapena ahalbidetuko duena.

Finantza-baliabideak lehenetsun araberako egokitu, finantza-iturri berriak eta/edo marketinean eta publizitatean espezializatutako estrategiak identifikatu.

Dauden baliabideen optimizazioa lortu eta babesle pribatuen diru-sarrerak bilatu, ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzako kooperazio formulak sustatuta.

EREDU KONTZEPTUALA

Rekalde Aretoaren ereduak berezko dinamika bat islatu nahi du etengabe, hurrengo euskarrietan oinarrituta:



Lau euskarri hauek funtsezkoak dira Rekalderen funtzionamenduan; lotuta eta harremanean jarduten dute.

Ereduak lehentasuna ematen dio eginkizun didaktiko eta hezitzaileari. Eginkizun hori kalitatezko programazio batean oinarritu behar da; horren interesa behar bezala transmititu behar da komunikaziorako bideetatik eta nazioarteko proiektzioa izan behar du.

Eredu honek Rekalderen ikusgarritasuna berreskuratu eta bere irudiaren alde egin nahi du, gizartean behar besteko laguntza erakargarria sortzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Rekalden **gune berritzailea** bat, **indar desberdintzailea** duena, Arte Garaikidea erakutsi eta proiektatzeko gai dena, sortzea.
- Xedetzat **Arte Garaikideaz ikastea, pentsatzea eta eztabaidatzea** duen **Hezkuntza Proiektu** bat sustatzea, batez ere.
- Rekaldek **Nazioarteko Zirkuituan** duen presentzia sendotzea.
- **Kalitatezko programazio** bat, plurala eta erakargarria, prestatzea, oinarrian gizartearekin eta komunitate artistikoarekin elkarriketa izateko borondatea duena.
- **Antolaketa-egitura** operatiboa ezarri eta sendotzea, funtzionamendu eta finantza estrategia seguruak erabilita.
- Ikerketaren eta hezkuntzaren arloan, baita finantzazioaren arloan ere, Rekalde Aretoarentzako **lankidetzarako eta garapenerako itunak** sustatzea.